

Corrompidas entrañas de reptiles,
 corazones de buitres carniceros,
 hombres cobardes que besais serviles
 las cadenas de Césares guerreros.....

¿Qué de sublime, levantado y santo
 se espera de una gente envilecida?
 Si tu ceguera te arrastraba á tanto,
 ¡¡¡maldicion sobre tí, Salen deicida!!!

OBDULIO DE PEREA.

GAUZIK EDERRENA,

Amoriozkoa izanik gu egin gaituen Jainkoa, gure sustraia amorioa da, eta onek anaitzen gaitu gizon guztiok, guztion asiera ta buka dan Jaun amoriotsu artan, gorputz, odol, erri eta gañerako, azaletik berezitzengaituzten banaita edo diferenziak, iturri batetik batera ta bestera irtetzen diran urak, batera jo baño len beren bideetan daramatziten orbel bat edo beste bezela baizik ezdirala. Ala, ¿zér da geren odol edo gorputz izatea, zér eriotza bera, amorioarentzat? ¿Aztu zaigu zeñ izan zan gure lenbiziko itza? ¡Ama!.... izandu zan au, baño odolaren gain amorioa dagoelako, jama! esatendio amik gabeko umezurtz chikiak ere, aren ordeintzak egiten dizkanari, jama baten ordeintzak egin albalitez!... Dakigu, alaberean, amorioak ezduela ezagutzen eriotzik, da esatea, ezduela onek beñere ura iltzen, eta bai askotan piztu ta sendotzen, irazeki ta sutzen, maite ditugunak obiratzenzaizkigunean.

Da, bada, amorioa, gurekin jaiotzendan baño iltzen ezdan gauza, da animaren anima, eta gizonák, deserri ontan arkitzen dituen gauzak ikusirik amorio onen trabés, kristal baten atzetik bezela, maite ditu asko, amorio oni eranzunik, bere Jaunaganonz, Amoriozko Iturri aren alderonz, bialtzen dutenak. Au gertatzenzaio Euskaldunari.

¡O nere Euskal-Erria!.... ¿Zergatik zera zorionekoa zure doaka-been erdian? Zure umeak Jaunari bialtzen dizkatzulako. ¡Bai! Alde batetik dauzkatzu Zerurañoko mendiak, beren kolkoetan ermita konsolagarriak gordetzen dituztela: bestetik erakusten dizkigutzu itsaso eder orren bagak, aditzera eman nairik mundu ontako joan-etorrien ezereztasuna; jartzen dizkigutzu aurrean ¡lotsaturik bezela! ¡ai!....

lengo zure seine leial gure guraso maiteen Lege zarra, kondaira onragarria, Fede osoa, antziñeko oitura garbiak, eta, batezere, oek guztiak baño geiago balio duten ¡gaurko eguneko penak! ¡A!..... ¡Zorioneko penak ¡bai! lurretik Zerura alchatzen gaituztenak! Eta..... ¿nolá ezgaituzte alchatuko? Ikusirik gure aitonen legeak pusketan, oiturak erdi galduan, kondaira aztua, itsasoa echeak negarrez betetzen, mendiak gorroto madarikatuak gure anaien obitan bihurturik, ¿non gaude? norá begiratu genezake? ¡A!..... Bakar-bakarrik ermitacho umill ura dago len bezela, ta egongoda, zut-zutik, mundu triste au bera igaro arte. ¡Goazen ara! Erleàk lorearen motaiška edo mimikutik ateratzen duen ezitia, aterako degu guk artatik, gure samintasunak gozatzeko. ¡Goazen! ¿Zér ageri da barrenen? ¡Gurutzea!....

¡O Gauza parerik gabekoa, gizonen esperanza bakarra! Nik ikustendetanean gizon gaišo sufrimentuan mugikgabeko martirio ikaragarrian, Zuri begira bere bizia pozik ematen; ikustendetanean misioegillea eriotz izugarri baten aurrez-aurre, Zuregatikan, far-irri-atsegin batekin, bizia emateko prest jarria; ikustendetanean pekatari umill damutua Zure aurrean bere etsai guztientzat eta beretzat barkazioa biotzetik eskatzen, bear bada ontarako bere bizia eskeñtzendizula; ikustendetanean eritegi batean monja karidadekoa eri gaišoan zauri nazkagarriak sendatzen, oetan ikusirik Gurutzean ageri diran zauri maitati sekulan aski bedeinkatuko ezditugunen itzal choragarri bat bezela; ikustendetanean, ez bakarrik salbatu zenuela gizona, baizik aunditu eta edertu, berari ekarririkan egiazko Libertade bakar santua, lengo illunbea, naspilla eta lotsa Eguzkiak lañoa bezela kendurik; ikustenditudanean Munduko begi guztiak ¡Zuri begira! beste gauza bat bakarrari ez bezela, eta anima askok egiten dizkitzun begiratze maite, eskertsu, kupigarriak; ikustenditudanean ichu gaisoak Zure billa dabilzala; pensatzen detanean Zure dotriña illezkor miragarrian, ikusirik, aide guztietara, Amorioa, Barkazioa eta Zoriona baizik etzerala, nik esatendet nere Euskal-Erri biotzekoan ezdegula ezer galdu ¡ez!... gure elizetan, ermitetan, eskoletan, bide bazterretan, echeetan, eta, guzien gañ, biotzetan, Zu gurekin zerala; nik esatendet, biotzosoq eta ao betez: ¡¡Zu zera gauzik ederrena!!

ANTONIO ARZÁC.

1883-ko Marchoan.

